

**BALDINTZA TEKNIKOEN ETA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA**  
**ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO LABORLAN I eta II PROIEKTU-LABORATEGIA EBALUATZEKO**  
**ZERBITZUA**

<b>ESLEITZEKO MODUA:</b>	<b>Prozedura murriztua</b>
<b>KONTRATUAREN HELBURUA:</b>	<b>Enplegagarritasuna hobetzeko LABORLAN I eta II proiektu-laborategia ebaluatzeke zerbitzua</b>
<b>ZERBITZUAREN BALIO ZENBATETSIA:</b>	<b>55.000 € (BEZik gabe)</b>
<b>KONTRATUAREN HASIERA:</b>	<b>2021/01/01</b>
<b>KONTRATUAREN AMAIERA:</b>	<b>2021/12/31</b>
<b>LUZAPENA:</b>	<b>EZ</b>

### 1.- PROIEKTURAKO SARRERA

**Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentzia (aurrerantzean, DEMA)** 1989an sortu zen eta, harrezkero, enplegu foru estrategien markoan ekimenak garatzen ari da; hala, jardura eta programa ugari sustatzen ditu Bizkaiko pertsoneri zerbitzua emateko.

Enplegua sustatzeko programak garatzen ditu, **personak gunean jarri** eta tresna egokiak eskainiz, beren lan helburuak zehazteko, gaitasun pertsonalak eta enplegagarritasuna hobetzeko, eta lana aurkitzeko aukerak areagotzeko.

Marko horretan, DEMAK Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna sustatzeko sailaren dirulaguntza jaso du, 2020an LABORLAN proiektu esperimentala abian jarri ahal izateko. "Laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegagarritasuna enplegu-formakuntza programa mistoen bidez hobetzeko laborategia" da LABORLAN, eta bi fase izango ditu: lehenengoa, formakuntzakoa, eta bigarrena, langabeek esperientzia lortzeko lanerako kontratatuta.

COVID-19aren pandemiak koiuntura ekonomikoan eragindako aldaketak, konfinamenduak eta horren ondoriozko krisi ekonomikoak eragin handia izan zuten laborlan proiektuaren I. edizioan, eta aldaketa handiak egon ziren jarduketetan, epeetan eta helburuetan. Gaur egun krisi ekonomikoko egoeran gaude, eta beharrezkoa da enplegua babesteko neurri berriak hartzea, baina beste ikuspegi batetik, helburuak, kolektiboak eta jarduketak birdefinituta, egungo egoerari aurre egiteko eta enplegu laborategia beste sektore/jardura ekonomiko batzuetan esperimentatzeko, sektore/jardura horiek, egungo krisia gorabehera, enplegurako ateak izan baitaitezke etorkizunera begira.

Edizio berri honetan, hainbat **jarduketa formula** esperimentatu nahi dira, **prestakuntza eta enplegua konbinatuta**, hainbat jardura eremutan. **Programa pilotuak** izango dira, eta **jardura eta emaitza**

**adierazleak izango dituzte jarraipena eta amaierako ebaluazioa egiteko funtsezko tresna gisa**, era horretan ondorioak atera eta indarguneak eta hobetzeko arloak identifikatzeko, izandako arrakastetan oinarrituta etorkizuneko jarduketak diseinatzeko oinarri izan daitezten. Aldi berean, langabeen lehenetsuneko kolektibo bati emango zaio arreta, besteak beste, COVID-19aren krisiaren ondoren lan merkatutik kanporatuak izan diren pertsonen. Horiei prestakuntza emango zaie merkatuaren beharren arabera, enplegurako bidean lagunduko zaie eta lan aukera bat emango zaie.

DEMAK LABORLAN LABORATEGIA proiektuaren bigarren edizioa jarriko du abian 2021ean, oraingoan krisi ekonomikoko egoera baten premietara egokituta, LABORLAN I edizioan garatutako ekintzen osagarri gisa.

Jarduketaren azken helburua da langabeziatik ateratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak laneratzea, eta beharra duten sektore eta jarduera ekonomikoei laguntzea, zenbait lanpostutan lan kontratazioak egiteko.

DEMAK sektore/jarduera desberdinetako gizarte eragile garrantzitsuekin lankidetzan jardungo du, eta eragile horiek informazioa emango diote enpresen formakuntza beharrei buruz, proiektu pilotuetan parte hartzen duten langabeei formakuntza hori eskaini ahal izateko. Ondoren, sektoreko enpresetan esperientzia lortzeko hurrengo fasera igaroko dira parte hartzaileak, proiektu pilotua amaitzean ahalik eta gehienek lortu dezaten laneratzea.

Sektore bakoitzak berezitasun propioak dituenek, jarduketa bakoitzaren ezarpenak ere bere berezitasunak izango ditu, eta, hortaz, ikasteko aukera berezi gehiago egon daitezke, etorkizunean esku hartze zabalago bat egin ahal izateko.

**Ekintzak:** Ekintzak: Pilotu honen helburua da DEMAK eta Bizkaiko Foru Aldundiak aurreko programetan gauzatu dituzten eta iraganean eraginkorrak izan diren zenbait ekintza egitea. Hala, pilotu honetan hiru esku hartze hauek egingo dira:

**-I. fasea: Formakuntza:** erakunde laguntzaileek sektore bakoitzeko enpresetan detektatutako eta haiek adierazitako behar espezifikoaren arabera diseinatutako ikastaroak.

**-II. fasea: Esperientzia enpresan:** parte hartzaileek lanbide esperientzia lortzeko egonaldia egingo dute enpresa jakin batzuetan. Egondia 2-3 hilabetekoa izango da, sektorearen arabera. Enpresen lan kostu gehienak DEMAK ordainduko ditu.

**-Zeharka:** Akonpainamendu integrala, langabeak programan sartzen direnetik enpresan esperientzia lortzeko egonaldia amaitu arte. Etengabe laguntza izango dute eta motibatu, gidatu eta bideratuko dituzte, lan munduan txertatzeko bidean.

### **Ebaluazioaren garrantzia:**

Kontuan hartuta DEMAK proiektu pilotu honetan egingo duen ahalegina eta berrikuntza, biziki garrantzitsua da datuak biltzea proiektuaren ziklo osoan (hasien denetik amaitu eta hilabete batzuk igaro bitarte), diseinua, ekintzen ezarpena, eragileekiko lankidetzak eta emaitzak (parte hartzaileak langabeziatik ateratzeari dagokionez) ebaluatzeko.

Proiektu esperimental gisa diseinatu denez, DEMAk abian jartzen dituen ekintzak ebaluatzeko asmoa du. Mugarren eta jarduketan ebaluazioa eginez, aztertuko da zer eragin duen programak bertan parte hartzen duten langabeengan, haien enplegarritasuna hobetzeari eta langabeziatik ateratzeari dagokienez.

Gainera, ebaluazioak proiektua hobetzeko balio izango du, etorkizunean hedatu ahal izateko, bai eta lortutako ikaskuntzak Bizkaiko Foru Aldundiaren enplegarritasunari buruzko hurrengo foru dekretuetan txertatu ahal izateko ere.

## 2.- KONTRATUAREN HELBURUA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak (SPKL), 17. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratuaren helburua da **zerbitzu hau eskaintzea: “Laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegarritasuna enplegu-formakuntza programa mistoen bidez hobetzeko LABORLAN laborategia” proiektuaren ebaluazioa.**

**LABORLANen bi deialdiak ebaluatuko dira: gaur egun garatzen ari dena eta 2021ean hasiko dena.**

### LABORLAN I: 2020ko deialdia.

2020aren hasieran abiatutako proiektua, COVID-19ak eragindako konfinamenduaren ondorioz gelditu zena. Irailean ekin zitzaion berriro, eta fase aktiboak 2021eko maiatzean amaitzea aurreikusten da.

Proiektu osoa ebaluatuko da. Bertan, **sei jarduketa bereizi** biltzen dira, sektore/jarduera hauetan:

- Gozogintza / Okintza
- Psikologia
- Programazioa
- Fabrikazio mekanikoa / Soldadura
- Fabrikazio industrialak
- Bidaiarien errepide bidezko garraioa (Autobusa gidatzea)

Sektore bakoitzetik 12-20 pertsona artean egongo dira, eta **guztira 104 parte hartzaile gehienez** izango dira. Pilotu honetan, DEMA aipatutako sektore/jarduera ekonomiko bakoitzeko gizarte eragile bitartekariekin lankidetzan ari da.

Jarduketa bakoitzaren xehetasunak, hala nola faseak eta epeak, formakuntza programak, kolektibo hartzaileak, parte hartzeko baldintzak eta antzeko gaiak, espezialitate bakoitzerako argitaratutako oinarrietan kontsultatu daitezke, DEMAren web orrian, esteka honetan: <https://www.dema.eus/programas-dema/programas-activos/>

## **LABORLAN II: 2021eko deialdia.**

Proiektua plangintza fasean dago gaur egun. Fase aktiboak 2021ean hasiko dira, eta urtean bertan amaituko direla aurreikusten da. Proiektu osoa ebaluatuko da. Bertan, **sei jarduketa bereizi** biltzen dira, sektore/jarduera hauetan:

- Bio medikuntza
- Galdeketa (metala)
- Nekazaritza sektorea
- Eraikuntza sektorea (obra zibila)
- Pertsonen zainketen ekonomia
- Goi mailako titulazio 45 urtetik gorako exekutibo ohiak

Sektore bakoitzetik 12-24 pertsona artean egongo dira, eta **guztira 111 parte hartzaile gehienez** izango dira. Pilotu honetan, DEMA aipaturako sektore/jarduera ekonomiko bakoitzeko gizarte eragile bitartekariekin lankidetzan ariko da.

Jarduketa bakoitzaren xehetasunak, hala nola faseak eta epeak, formakuntza programak, kolektibo hartzaileak, parte hartzeko baldintzak eta antzeko gaiak, espezialitate bakoitzerako argitaratutako oinarrietan kontsultatu ahal izango dira, DEMAren web orrian.

### **Ebaluazio prozesuan hiru zeregin nagusi bereizten dira:**

1.- Proiektuan parte hartzen duten kolektiboan (izena emandako langabeak, azkenean hautatutako pertsonak, gizarte eragileak eta kontratazio fasean parte hartzen duten enpresak) hasierako azterketan oinarrituta, zenbait formulario prestatzea, kolektibo guztiei proiektuaren fase guztietan emateko.

Enpresa ebaluatzaileak (esleipendunak) diseinatuko ditu galdetegiak eta DEMArekin batera lan egingo du horiek banatu eta beharrezko datuak biltzeko.

2.- Galdetegietan jasotako informaziotik, fase bakoitzaren diagnostikoa eta ebaluazioa egitea, jarduketa bereizi bakoitzerako eta baita LABORLAN proiektu globalerako ere.

3.- Gomendio batzuk aurkeztea, egindako analisian oinarrituta.

## **EGIN BEHARREKO EBALUAZIO LANEN XEHETASUNAK**

**Ebaluazio prozesuak gutxienez fase hauek izango ditu, LABORLAN proiektuaren lehen eta bigarren deialdietako jarduketa espezifikoean (6+6), parte hartzen duten kolektibo eta eragile guztiak kontuan hartuta.**

### **JARDUKETAK ELKARREKIN DISEINATZEKO FASEA:**

-Erakunde laguntzaile bakoitzarekin egindako lankidetzaren hitzarmenak eta gainerako dokumentazioa berrikustea eta aztertzea, jarduketa bakoitzaren diseinuan indarguneak eta hobetzeko arloak detektatzeko.

### **HAUTAGAITZAK ERAKARTZEKO ETA PARTE HARTZAILEAK HAUTATZEKO FASEA:**

-DEMAk izena emateko formularioen bidez eskatzaile bakoitzarengandik jasotako informazioa berrikustea eta aztertzea.

-DEMAk proiektu hau ezagutarazteko eta parte hartzeko interesa izan dezaketen pertsonengana iristeko erabilitako komunikazio eta zabalkunde metodoak berrikustea eta aztertzea.

-Izena emateko formularioetan jasotako informazioarekin, eskatzaileen profila aztertzea.

-Espezialitate bakoitzean egindako hautaketa prozesua aztertzea (parte hartzeko betekizunen arabera lehen hautaketa, elkarrizketak, hautaketa irizpideak, eta abar), hobetzeko arloak detektatzeko.

Hautagaitzak erakartzeko eta parte hartzaileak hautatzeko fase honetan parte hartzen duten eragileengandik (DEMA eta erakunde laguntzaileak) lortutako informazioa kontuan hartuta lan egin beharko da.

### **FORMAKUNTZA FASEA:**

Formakuntza fasea, zeinean erakunde laguntzaileek sektore bakoitzeko enpresetan detektatutako eta haiek adierazitako behar espezifikoaren arabera diseinatutako ikastaroak egingo diren. Iraupena sektorearen mende egongo da, baina, oro har, 100 ordutik 400era bitarteko ikastaroak izango dira.

Laborlan II deialdiak gaitasun digitalen inguruko modulua sartzen du ekintza guztietan.

Parte hartzaileek formakuntzari buruz duten jarreraren diagnostiko ahalik eta osoena egingo da, beren trebetasun pertsonalen, trebetasun teknikoaren, motibazioen, itxaropenen eta abarren ikuspegitik. Diagnostikoa formakuntza fasearen hasieran eta amaieran egingo da, eta eboluzioen emaitzak lortuko dira.

Parte hartzen duten formakuntza erakundearen, gizarte erakunde laguntzaileen eta DEMAren ikuspuntuetatik lortutako informazioa aztertu eta txertatu beharko da, planifikatutako eta emandako formakuntzari, ikasleen egokitzapenari, motibazioei eta zailtasunei dagokienez.

### **ENPRESAN LANBIDE ESPERIENTZIA LORTZEKO FASEA:**

Fase honetan, parte hartzaileek lanbide esperientzia lortzeko egonaldia egingo dute enpresetan, lan kontratazioaren bidez. Egonaldia 2-4 hilabetekoa izango da, sektorearen eta deialdiaren arabera. Enpresen lan kostu gehienak DEMAk ordainduko ditu.

Lanbide esperientzia lortzeko fasearen diagnostiko ahalik eta osoena egingo da, eta formularioak eta beste-lako metodoak erabiliko dira kontratua hastean zein amaitzean informazioa biltzeko. Motibazioak, lanpostuen profilak, pertsonak eta lanpostuak bat etortzen ote diren, laneko zeharkako gaitasunak eta gaitasun teknikoak aztertuko dira, eta eboluzioen emaitzak lortuko dira. Parte hartzaileen, enpresa kontratatzaileen, tutoretza lana egiten duten formakuntza erakundearen, laguntzaileen eta DEMAren ikuspuntuetatik lortutako informazioa txertatu beharko da.

Gainera, parte hartzaileen laneratzeari buruzko datuak erregistratuko dira, eta jarduketa bakoitzean eta oro har zer kontratazio emaitzak lortu diren ikusiko da.

### **LANBIDE ESPERIENTZIAREN OSTEKO ZEHARKAKO AKONPAINAMENDU ETA JARRAIPEN FASEA:**

Aurreikusita dago parte hartzaileei akonpainamendu integrala eskaintzea programara iristen direnetik enpresan kontratatzeke II. fasea amaitu eta denbora jakin bat igaro arte; horrela, pilotuan parte hartzen duten pertsonen enplegarritasun egoerari jarraipena egingo zaio. Akonpainamenduan enplegurako orientazioa emango da, taldeko tailerren eta banakako aholkularitzaren bidez, prozesu osoan, parte hartzaileak lan munduan txertatzeko bidea gidatuz.

Lortutako laneratzearen azterketa: enpresa ebaluatzaileak informazioa jasoko du, parte hartzaileek programan izandako bilakaerari buruz, enplegurako gaitasun pertsonalei, programan lortutako lanbide bilakaerari eta lanbide esperientzia lortzeko egonaldia amaitu eta hurrengo hilabeteetan duten lan egoerari dagokienez. (proposamenean zehaztu beharreko jarraipen hilabeteen kopurua).

Laneratze tasa neurtuko da, batetik, parte hartzen duten enpresetan, eta, bestetik, programaz kanpoko beste enpresa batzuetan.

Era berean, laneratzea lotzen ez duten pertsonen egoera eta bilakaera neurtu eta aztertuko dira.

### **DEMA-RI AURKEZTU BEHARREKO TXOSTENAK:**

-Fase bakoitzean txosten bat egingo da, diagnostikoarekin eta gomendioekin, eta DEMARI entregatu eta kontrastatu egingo da.

-Dokumentazio guztia eta, batez ere, diseinatzen eta presatzen diren formularioak, EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ egongo dira.

-LABORLAN programaren ebaluazioa amaitzean, enpresa esleipendunak **amaierako txostena** egingo du ebaluazioaren emaitzekin. Txosten horretan jasoko da esku hartzearen fase bakoitzaren azterketa, bai eta azterketa bateratu bat ere (jarduketa bakoitzarena eta gobala), eta ikasitako gauzen eta gomendioen atal bat izango du.

Kontratu hau ez dago sortatan zatituta, SPKLaren 99. 3 b) artikulua babesean.

### **3.- EBALUAZIOAREN JABETZA INTELEKTUALA ETA HURA USTIATZEKO ESKUBIDEAK**

DEMA kontratua gauzatzeko erabilitako entregagai, software eta dokumentu guztien titularra izango da, kontratua amaitzen denean nahiz alde aurretik suntsiarazten denean. Ondorioz, DEMAK entregagai guztiak erreproduzitu, aldatu eta zabaldu ditzake, osorik edo zati batean, enpresa esleipendunak aurka egin gabe.

Enpresa esleipendunak agintzen du baldintza horiek errespetatuko dituela, eta ez dituela kontratuaren entregagaiak erabili, ezagutzera eman edo zabalduko, non eta ez den DEMAREN berariazko baimenarekin. Gainera, esleipendunak uko egiten dio lege, lanbide, ekonomia edo beste arlo batzuetako ekintzak edo erreklamazioak egiteari.

#### **4.- KONTRATUAREN IRAUPENA**

Zerbitzua emateko epea kontratua sinatzean hasiko da, eta amaierako txostena entregatu arte iraungo du. Kontratuak **2021eko abenduaren 31**ra arteko iraupena izango du gehienera jota.

Dena den, enpresa esleipendunak txosten partzialak entregatu beharko dizkio DEMARI, dokumentu honen 2. puntuan (Kontratuaren helburua) adierazitako faseak amaitu ahala, fase bakoitza amaitu eta hilabeteko epean.

Entregatze datak betetzen ez badira, zigor ekonomikoak egongo dira, non eta esleipendunak ez duen DEMAK ontzat ematen duen arrazoi justifikaturik.

Kontratuak ez du luzapenik izango.

#### **5.- ZERBITZUAREN BALIO ZENBATETSIA**

Zehaztutako zerbitzu guztien gehieneko prezioa izango da **BERROGEITA HAMAR MILA EURO (55.000 €)**, **gehi dagokion BEZA**.

Zerbitzuaren aldaketak edo eteteak eta, ondorioz, esleitutako zenbatekoen aldaketak: Zerbitzuak murriztea edo areagotzea erabakitzen bada, zerbitzuaren prezioa proportzionalki jaitsi edo igoko da. Bat-bateko gorabeherengatik DEMAK zerbitzua aldi baterako edo behin betiko eten behar izanez gero, esleipendunari jakinaraziko dio, eta zerbitzuaren prezioa proportzionalki aldatuko da. Kasu horietan, esleipendunak ez du izango kalte-galerak erreklamatzeko eskubiderik.

#### **6.- PROZEDURA MURRIZTUA. FASEAK ETA EPEAK:**

Prozedura murriztua erabiliko da, hainbat fasetan banatzen dena enpresen proposamenei dagokienez. Parte hartzeko eskaerak egiteko lehenengo fasean, gaitasuna eta kaudimena frogatu behar dira, eta, azken fasean, DEMAK hautatutako enpresek bakarrik parte har dezakete; enpresa horiek beren proposamen teknikoak eta ekonomikoak aurkeztu ahal izango dituzte. Jarraian, faseak eta epeak zehazten dira:

##### **FASEAK ETA EPEAK:**

- **PARTE HARTZEKO ESKAEREN FASEA:** Prozedura murriztuan parte hartu nahi duten enpresek 15 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dituzte parte hartzeko hautagaitzak, iragarki hau BAOn argitaratzen denetik hasita. Fase honetan, enpresak gaitasun eta kaudimen baldintzak baino ez ditu frogatu beharko, 7. puntuan adierazitako eran.
- **ENPRESAK HAUTATZEKO FASEA:** DEMAK enpresak hautatu eta gonbidapena bidali beharko die 10 egun naturaleko epean, 8. puntuan adierazitakoaren arabera.
- **PROPOSAMENAK AURKEZTEKO FASEA:** DEMAK hautatutako enpresek beren proposamen teknikoak eta ekonomikoak aurkeztu beharko dituzte 10 egun naturaleko epean, 9. puntuan adierazitakoaren arabera.

**HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA MODUA:** Parte hartzeko eskabideak nahiz azken proposamenak paperean aurkeztu beharko dira, gutun azal itxietan, DEMAren bulegoetan (Barakaldo Elkartegia, Fanderia kalea 2, Barakaldo-Bizkaia).

**7.- PARTE HARTZEKO ESKAEREN FASEA: GAITASUNA ETA KAUDIMENA FROGATZEA. LIZITATZEKO ETA KONTRATATZEKO GUTXIENEO BALDINTZAK. PARTE HARTZEKO ESKARIEN FORMA ETA EDUKIA**

Nahi duen enpresa orok parte hartzeko eskaera aurkeztu dezake, lizitazio iragarkia argitaratu eta **15 egun naturaleko epean, gutun azal itxian**, lizitatuzaileak edo bere ordezkariak **sinatuta**, eta honako hauek adierazita: izen-abizenak, enpresaren sozietate izena eta kargua. Gutun azalak honako testu hau izango du:

**“ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO LABORLAN PROIEKTU-LABORATEGIA EBALUATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO ESKARIA”**

**“KAUDIMEN BALDINTZAK BETETZEN DIRELA FROGATZEKO DOKUMENTAZIOA”**

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute Espainiako naiz atzerriko pertsona natural edo juridikoek, baldin eta gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa badute, beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala frogatzen badute, eta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak ezarritako kontratatze inolako debekurik ez badute. Era berean, kontratuak helburu dituen zerbitzuak emateko, hala badagokio, eska daitekeen lanbide edo enpresa gaikuntza izan beharko dute. Lizitazio honetan parte hartzeko eskaera aurkeztu nahi duten enpresek, jarraian zerrendatuta dauden **kaudimen ekonomiko-finantzarioko eta tekniko-profesionaleko baldintzak** bete beharko dituzte, bai eta hori frogatu ere, gutun azalaren barruan egiaztagiriak aurkeztuta.

Kontratua egiteko beharrezkoa den kaudimena frogatzeko, enpresa beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu daiteke, edozein dela ere horiekin duen harreman juridikoa. Nolanahi ere, kasu horietan, enpresak frogatu beharko du kontratuak irauten duen bitartean kaudimen eta baliabide horiek izango dituela benetan, eta, gainera, beste erakunde horrek ez duela kontratatze inolako debekurik.

Kasu horretan, argi eta garbi adieraziko du zer enpresarekin kolaboratzen duen, zer harreman juridiko duen horiekin, eta enpresa bakoitzak zer bitarteko eta baliabide jarriko dituen.

**Enpresa eskatzaileek gutxieneko kaudimen baldintza hauek bete beharko dituzte:**

**a) KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA:**

**Behar besteko kaudimen ekonomiko-finantzarioa ziurtatzea**, enpresa esleipendunaren fidagarritasuna bermatzeko.

Kaudimen ekonomikoa ziurtatzeko, **frogatu beharko du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, eta bere kontu ekonomikoetan kargarik ez duela.**



Egiaztapen hori dokumentazio honen bidez egingo da:

- Negozio zifra globalari buruzko aitortpena, eta enpresak azken **bi ekitaldietan** egindako zerbitzu edo lan handien banakatzea, adierazita zenbatekoak, datak eta onuradun publikoak eta pribatuak.
- Azkeneko bi ekitaldietako urteko kontu ofizialen laburpena, dagokion erregistrotik pasatuta.
- Gutxienez 300.000 euroko erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat izatearen egiaztatzea.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiriak.

#### **b) KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA:**

**Behar besteko ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna ziurtatzea, bai eta 2. puntuan (Kontratuaren helburua) deskribatutako zerbitzua emateko antolatze gaitasun nahikoa ere.** Kaudimen teknikoan, gutxienezko baldintzak hauek izango dira:

**2.1.- Aurreko lanak:** programa publikoetarako ebaluazio sistemen diseinuan eta garapenean gutxienez bi urteko esperientzia ziurtatzea.

**2.2.- Giza baliabideak eta baliabide teknikoak:** proiektu honetan lan egiteko gutxienez hiru profesional jartzea. Akademikoki gutxienez doktoregaiak direnak, horietako bi gutxienez.

**2.3.- Ekipamendu teknikoa:** zerbitzua emateko instalazioak eta ekipamendu tekniko eta material egokia edukitzea.

Kaudimen tekniko eta profesionalaren egiaztapen hori dokumentazio honen bidez egingo da:

- Enpresak behar bezala sinatutako eta zigilatutako aitortpena, hau adierazten duena:
  - Azkeneko urteetan egindako zerbitzuen edo lanen zerrenda, lanen deskribapena, datak eta erakunde hartzailea adierazita.
  - Enpresaren batez besteko langile kopurua azkeneko urtean, administrazioko langileak, teknikariak eta zuzendaritza taldekoak bereizita, eta egungo langileen banakatzea.
  - Zerbitzuak emango dituzten enpresako langileak, horien rola, lan kategoria, titulazio akademikoa eta lanbide esperientzia adierazita.
  - Instalazioen deskribapena, bai eta zerbitzua emateko erabiliko den ekipamendu teknikoarena eta materialarena ere.
- Azkeneko 3 hilabeteetako RLC (Kotizazioen Likidazio Ordainagiriak) eta RNT (Langileen Zerrenda Nominala).
- Kontratuan parte hartuko duten teknikarien curriculum vitaeak.
- Ekonomia jardueren gaineko zergako (EJZ) altaren kopia, kontratuak eskatzen duen jarduera egin ahal izateko.

Era berean, enpresa guztiek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Lehiakidea pertsona juridikoa denean, IFKren fotokopia, eratze eskritura eta estatutuak, dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta, aplikatu beharreko merkataritza legediaren edo legedi zibilaren arabera.
- Edozelan ere, sinatzailearen NANaren fotokopia eta erakundearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duela egiaztatzen duen dokumentua (izendapenaren ziurtagiria, ahalordetze eskritura, etab.).
- Berariazko erantzukizunpeko aitortpena, **agiri honetako I. eranskinaren arabera**, aditzera ematen duena Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren arabera kontratatzeko debekurik ez duela eta aurkeztutako proiektuari ekiteko behar besteko gaitasun juridiko eta jardutekoa, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, eta kaudimen tekniko, profesional eta kudeaketakoa dituela.

Aurkeztu beharreko dokumentazio guztiari dagokionez, DEMAk beretzat gordetzen du jatorrizko dokumentuak eskatzeko ahalmena, hautaketa prozesuaren edozein unetan, eta, betiere, prozesuaren ondoren.

## **8.- ENPRESAK HAUTATZEKO FASEA.**

Parte hartzeko eskariak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere **10 eguneko epean**, DEMAk aztertu egingo ditu jasotako eskariak, eta prozeduratik kanporatuko ditu iragarkian adierazitako kaudimen ekonomiko-finantzario eta tekniko-profesionaleko baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileak. **Gutxienez 5 hautagaitza** aukeratuko ditu aipaturiko baldintzak betetzen dituztenen artean, eta dagokion jakinarazpena bidaliko die posta elektronikoz, **10 eguneko epean** behin betiko proposamena aurkezteko gonbidapena eginuz. Aukeratuak izan ez diren hautagaitzei erabaki horren berri emango die, posta elektronikoz.

Baldintzak bost hautagaitzak baino gehiagok betetzen badituzte, gehienez ere bost aukeratuko dira. Baldintzak bostek baino gutxiagok betetzen badituzte, dauden horietatik aukeratuko dira (hots, baldintzak betetzen dituztenak).

## **9.- HAUTATUTAKO ENPRESEK PROPOSAMENAK AURKEZTEKO FASEA**

Hautatutako enpresek **10 eguneko epea** izango dute proposamena aurkezteko, DEMAren jakinarazpena jasotzen dutenetik zenbatzen hasita. **BI GUTUN AZAL** aurkeztu beharko dituzte, **BEREIZITA ETA ITXITA**.

### **A GUTUN AZALA: PROPOSAMEN TEKNIKOA**

A gutun azalean hau idatzi beharko da:

**PROPOSAMEN TEKNIKOA. ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO LABORLAN PROIEKTU-LABORATEGIA EBALUATZEKO ZERBITZUA.** Era berean, enpresaren izena jarri beharko da, bai eta enpresaren ordezkariaren izen-abizenak, kargua eta sinadura ere.

A gutun azalean sartuko da **Emango den zerbitzuaren azalpen memoria**, agiri honetako 2. puntuan (Kontratuaren helburua) zehaztutakoaren arabera. Azalpen memorian, xehetasunez deskribatuko dira enpresak kontratuaren helburu diren zerbitzuak emateko proposatzen dituen alderdi tekniko eta metodologikoak, bai eta giza baliabideak, baliabide materialak eta antolakuntzakoak ere, eta horiek izango dira balorazio irizpide subjektiboak.

Gainera, A gutun azalean egongo da KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA, agiri honetako **II. ERANSKINEAN** jasotako eredia beteta eta sinatuta. Aitorpena aurkezten ez duten edo ezarritako erantzukizunpeko aitorpenaren ereduari jarraitzen ez dioten proposamenak baztertu ahal izango dira.

### **B GUTUN AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA**

B gutun azalean hau idatzi beharko da:

**PROPOSAMEN EKONOMIKOA. ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO LABORLAN PROIEKTU-LABORATEGIA EBALUATZEKO ZERBITZUA.** Era berean, enpresaren izena jarri beharko da, bai eta enpresaren ordezkariaren izen-abizenak, kargua eta sinadura ere.

B gutun azalean sartuko da eskaintza ekonomikoa, zeinean, gutxienez, lan kostuen, egitura kostuen eta bestelako kostuen aurrekontuak banakatuko diren. III. eranskinean (PROPOSAMEN EKONOMIKOA) jasotako ereduari egokitu beharko zaio, eta behar bezala sinatuta aurkeztuko da.

Ezarritako proposamen eredura eta argibide hauetara egokitzen ez diren proposamenak baztertu ahal izango dira.

## **10.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK**

Kontratua esleitzeko, era askotako esleipen irizpideak erabiliko dira, **kalitate-prezio erlaziorik onenean oinarrituta**. Irizpideak hauek izango dira:

**A) ESKAINTZA EKONOMIKOA (55 puntu).** Ikuspuntu ekonomikotik onuragarriena den proposamenak jasoko du puntuaziorik handiena. Formula honi jarraituko zaio:

$$\text{Aurkeztutako eskaintzaren puntuazioa} = (\text{Eskaintzarik onuragarrienaren balioa} \div \text{Aurkeztutako eskaintzaren balioa}) \times 55$$

Hasiera batean, eskaintzetan anormaltasun presuntzioa dagoela joko da, honako kasu hauetan:

- 1.Enpresa lizitatzailerik (aurrerantzean, lizitatzailerik) bakarra dagoenean, eskaintza lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino txikiagoa bada, % 25etik gorako portzentajea.
- 2.Bi lizitatzailerik daudenean, eta bien eskaintzen arteko aldea % 20etik gorakoa denean, eskaintzarik txikiena.

3.Hiru lizitatuzaile daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa eginda, % 10etik gorako portzentajearen zenbateko hori baino txikiagoa den eskaintza. Dena den, batezbesteko hori kalkulatzeko ez da kontuan hartuko zenbateko handieneko eskaintza, batezbesteko hori baino handiagoa bada, % 10etik gorako portzentajearen. Edozein kasutan, % 25etik gorako baja bat neurritz kanpokotzat joko da.

4.Lau lizitatuzaile edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa eginda, % 10etik gorako portzentajearen zenbateko hori baino txikiagoa den eskaintza. Dena den, % 10etik gorako portzentajearen batezbesteko hori baino handiagoak diren eskaintzak badaude horien artean, batezbestekoa berriz kalkulatu da, adierazitako kasuan ez dauden eskaintzak bakarrik hartuta. Nolanahi ere, hiru eskaintza baino gutxiago gelditzen badira, batezbesteko berria hiru eskaintza txikiak hartuta kalkulatu da. Puntuazio handiena emango zaio prezio txikiena eskaintzen duen lizitatuzaileari, eta txikiena prezio handiena eskaintzen duenari, baina tartekoei puntuazioa jartzean proportzio egokia gordez, kontratazio publikoa zuzendu behar duten printzipioak errespetatzeko.

**B) ESKAINTZA TEKNIKO (45 puntu).** Ikuspuntu tekniko-metodologikotik onuragarriena den eskaintzak jasoko du puntuaziorik handiena, eta, horretarako, balorazio irizpide hauei jarraituko zaie:

1. Eskaintzaren kalitate teknikoa, aurkeztutako proposamenak 3. puntuaren zerrendatutako zerbitzuaren zehaztapenetara ahalik eta gehien egokitzeko duen gaitasuna aztertuta. **(20 puntu)**
2. Proiektuan jardungo duten pertsonen curriculum vitaeak baloratuko dira, horien formakuntza akademikoa eta antzeko proiektuetan duten esperientziaren arabera. Langileen lan kontratuen kalitatea, lan egonkortasuna eta gizarte hobekuntzak baloratuko dira. **(13 puntu)**
3. Proposatutako tresna metodologikoak. **(10 puntu)**
4. Proposamenak 3. puntuaren eskatzen diren zehaztapenen gainetik sartzen dituen berrikuntzak eta hobekuntzak. **(2 puntu)**

Irizpide tekniko guztietan gutxieneko atalase bat jarri da, 25 puntukoa, eta kanpoan geratuko dira zenbateko hori lortzen ez duten enpresak.

## **11.- KONTRATAZIO ORGANOA**

DEMAren kontratazio organoa erakundeko zuzendariak eta teknikariak osatuko dute, eta horrek egingo du hautagaitzen balorazioa. DEMAren gerentea izango da presidentea, eta esleipena sinatuko du.

Prozesu honen inguruko kontsultak edo erreklamazioak bi eratan bidal daitezke: posta elektronikoz, [contratos@dema.eus](mailto:contratos@dema.eus) helbidera, edo, posta arruntez, DEMAren gerenteari zuzenduta.

## **12.- HAUTAKETA EGITEKO EPEA**

Hautaketa ahalik eta bizkorren egingo da, eta DEMAk agintzen du esleipen prozedura hau 2020/12/28a baino lehen amaituko duela.

## **13.- KONTRATUAREN ESLEIPENA**

Kontratazio organoak proposamen bakoitza baloratuko du baldintzen agiri honetan argitaratutako irizpideen arabera, eta bere ustez onuragarriena den proposamenari esleituko dio kontratua; bestela, esleitu gabe utziko du, baldin eta uste badu proposamenek ez dituztela betetzen zerbitzuaren helburuak. Kasu batean zein bestean, lehiakideek ez dute izango kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik.

Kontratua esleitu gabe uzten ez bada, kontratazio organoak, baldintzen agiri honetan jasotako balorazio irizpideak kontuan hartuta, irizpide horietara hoberen egokitzen den eta kalitate-prezio erlaziorik onena izateagatik onuragarriena den proposamenari esleitu ahal izango dio kontratua. Hala ere, irizpide ekonomikoari jarraiki, eskaintako zerbitzuetarako ondoriozta daitekeen baliora gehien egokitzen den eskaintza hautatzen saiatuko da.

DEMAk prozeduraren ebazpenaren emaitzaren berri emango die, posta elektronikoz, parte hartu duten erakunde guztiei. Erakunde esleipendunak, gainera, kontratuaren esleipen dokumentua jasoko du aipaturiko mezuaren eranskin gisa, eta jakitera emango zaio zein den kontratua sinatzeko epea eta noiz hasi behar duen zerbitzua eskaintzen.

#### **14.- SINATU BEHARREKO KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Agiri honetan oinarrituta egiten den kontratua, legedi zibilean eta merkataritza legedian oinarrituta, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 26. artikuluan araututakoari jarraiki, kontratu pribatua izango da.

Enpresa esleipendunak prest egon beharko du kontratua sinatu eta berehala zerbitzuak ematen hasteko.

Kontratatari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua formalizatzen ez bada, DEMAk erabaki dezake kontratua suntsiaraztea, interesdunari entzun ondoren, eta kalte-galerak ordainduko zaizkio.

#### **15.- KONTRATAZIOAK ETA AZPIKONTRATAZIOAK**

Esleipendunak bete behar ditu lan arloan, Gizarte Segurantzarenean eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden legezko xedapenak, araubidezkoak eta konbentzionalak. Lizitatzailerek adierazi beharko dute zer hitzarmen aplikatuko zaien kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei, esleipendun izanez gero. Halaber, kontratua esleitu ondoren langile horiei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute. Esleipendunak, kontratua gauzatzen den bitartean, langileari dagokion lanbide kategoriaren arabera aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ez da inola ere hura baino txikiagoa izango.

Eskaintza aurkezten duen enpresak beste enpresa batzuen laguntza izango badu zerbitzuen zati bat eskaintzeko, hasieratik adierazi beharko du, eta kaudimen tekniko-profesionalaren deskribapenean nahiz eskaintza tekniko-ekonomikoan jaso beharko du, identifikatuz enpresa kolaboratzailea edo kolaboratzaileak, beren arteko harreman juridikoa, harreman horren iraupena, eta profesionalen edo kanpoko beste baliabide batzuen zerrenda.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak zerbitzuren batean eragina duen alderdiren bat partzialki azpikontratatu nahi badu, aldez aurretik horren berri eman beharko dio DEMari, eta horrek onartu beharko du. DEMaren aldez aurreko onarpena izateko baldintza ez betetzea DEMak kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

## **16.- DATUEN BABESA**

Erakunde esleipendunak bermatuko du datu pertsonalak babesteko indarrean dauden arauak betetzen direla. Bereziki, honako hauek: alde batetik, 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, 95/46/EE Zuzentaraua (datuak babesteko erregelamendu orokorra; aurrerantzean, DBEO) indargabetzen duena; eta, bestetik, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (aurrerantzean, DPBEBLO).

**Enpresa esleipendunak kontratu espezifikoa sinatuko du DEMarekin, datu pertsonalak tratatzeko arduradun gisa.**

## **17.- GIZARTE KLAUSULAK. LEHENTASUNA BERDINKETA GERTATUZ GERO**

**1º.- Lehentasuna, dibertsitate funtzionalari dagokionez.** Bi enpresa lizitzailearen edo gehiagoren artean berdinketa badago, esleipenerako oinarri gisa erabiltzen diren irizpideen ikuspuntutik, lehentasuna izango du kaudimen teknika frogatzeko unean langileen % 2tik gora pertsona desgaituak dituen enpresak aurkeztutako proposamenak.

Proposamen onuragarriari dagokionez berdinduta dauden hainbat enpresak frogatzen badute beren langileen % 2tik gora desgaituak direla, kontratua esleitzeko lehentasuna izango du desgaitasuna duten langile finkoen ehunekorik handiena duen enpresa lizitzaileak.

**2.- Lehentasuna berdintasunaren arloan.** Bi proposamen edo gehiago berdinduta jarraitzen badute (aurreko puntua aplikatu ondoren), eskaintzak baloratzeko irizpideen ikuspegitik abantailatsuenak diren aldetik, kaudimen teknika egiaztatzeko unean enpresa edo erakunde hauek aurkeztutako proposamenek izango dute lehentasuna:

- "Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako erakunde laguntzaile" gisa erakunde publiko batek emandako ziurtagiria izatea.
- Berdintasun plan bat diseinatu eta aplikatu dute.
- Laneko edozein diskriminazio mota saihesteko, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna lortzeko edo lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egiteko neurriak hartu dituztela egiaztatzen dutenak.

- Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko neurriak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta/edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoak, betetzen dituztenak.

## **18.- BERMEAK**

Ez dira eskatzen.

## **I. ERANSKINA – GAITASUNARI ETA KAUDIMENARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

### ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO LABORLAN I eta II PROIEKTU-LABORATEGIA EBALUATZEKO ZERBITZUA

(Aldi baterako enpresa batasunen kasuan, enpresa kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du)

.....jaunak/andreak  
helbidea:.....; NAN:.....; telefonoa:.....;  
helbide elektronikoa:....., gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna ditu, bere izenean  
(edo..... ren izenean:.....; telefono zenbakia:.....; IFK:.....).

#### **ADIERAZTEN DU:**

Sektore Publikoko Kontratuen Legean jasotzen diren kontratatze debekuetako batean ere ez egotea, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun nahikoa izatea, kaudimen ekonomiko eta finantzario nahikoa izatea, bai eta aurkeztutako zerbitzuari ekiteko kaudimen tekniko, profesional eta kudeaketa kaudimen nahikoa ere, DEMAri aukera emanaz edozein unetan eskatzeko aurkeztutako justifikazioak egiaztatze beharrezkotzat jotzen duen jatorrizko dokumentazioa, eta instalazioetara bisita egitea, beharrezkotzat jotzen bada.

Berariaz adierazten du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, bai eta lan-arriskuei eta ingurumen-politikei dagokienez ere.

..... (e) n, 20..... (e) ko..... aren..... (e) (a) n

Sinadura



## II. ERANSKINA - KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

### ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO LABORLAN I eta II PROIEKTU-LABORATEGIA EBALUATZEKO ZERBITZUA

(Aldi baterako enpresa batasunen kasuan, enpresa kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du.)

.....jaunak/andreak  
helbidea:.....; NAN:.....; telefonoa:.....;  
helbide elektronikoa:....., gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna ditu, bere izenean (edo..... ren izenean:.....; telefono zenbakia:.....; IFK:.....).

### ADIERAZTEN DU:

**Lan araudia betetzeari dagokionez:** Eskaintza egiteko, kontuan hartu direla emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan aplikatzekoa den araudia eta Europar Batasuneko zuzenbidean, zuzenbide nazionalean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotzen duten ingurumen, gizarte eta lan arloko nazioarteko zuzenbideko xedapenetan ingurumen-, gizarte- eta lan arloan aplikatzekoa den araudia, eta bermatu direla, halaber, lan-eskubideak aplikatuko zaizkiela kontratua betearazten parte hartzen duten langileei. Enpresak lan-arloan, gizarte-segurantzian eta laneko arriskuen prebentzian indarrean dagoen araudi guztia betetzen duela.

Enpresak bere gain hartzen du ekoizpen kate osoan oinarrituko lan eskubideak errespetatzeko betebeharra, bai eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko konbentzioak betetzekoa ere, eta, bereziki, honako hauek.

- 29. eta 105. Konbentzioak, lan behartua ezabatzeari buruzkoak.
- Sindikatu, elkarte eta negoziazio askatasunari buruzko 87. eta 98. Konbentzioak Kolektiboa.
- 100. Konbentzioa, balio bereko lanaren truke gizonen eskulanaren eta emakumezkoen eskulanaren arteko ordainsari berdintasunari buruzkoa.
- 111. Konbentzioa, arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi publiko, erauzketa nazional edo jatorri sozialagatik enplegua lortzeko diskriminazioaren eta lan baldintzen aurkakoa.
- 138. Konbentzioa, haurren esplotazioa eta lana abolitzeari buruzkoa.
- 182. Konbentzioa, haurren lan modurik okerrenak debekatzeari eta horiek ezabatzeko berehalako ekintzari buruzkoa.

**Jazarpena prebenitzeko eta arlo horretako erreklamazioak bideratzeko legezko betebeharrari dagokionez:** Kontratuaren esleipendun izanez gero, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 48. artikuluan ezarritakoa betez, bere gain hartzen duela sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesten duten lan-baldintzak sustatzeko betebeharra, bai eta prozedura espezifikoa ezartzeko betebeharra ere, halakoak prebenitzeko eta horien xede izan direnek egin ditzaketan salaketak edo erreklamazioak bideratzeko. Era berean, konpromisoa hartzen du kontratuaren indarraldiko edozein unetan kontratuaren arduradunaren aurrean betebeharrak hori betetzen dela egiaztatzeko, hark hala eskatzen badio..

**Hitzarmen kolektiboari eta soldatari dagokionez:** Esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jardura egiten duten langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa honako hau da::

Hitzarmenaren izena:

Aldizkari Ofizialean argitaratua:

Argitalpen data:

Kontratua gauzatzen den bitartean, sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzeko konpromisoa hartzen duela, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata

ezin dela inola ere txikiagoa izan.

**Enpleguari eta plantillari eusteari dagokionez:** Hona hemen zerbitzuak gauzatzeko erabiliko duten langile-kopurua, kontratu-tipologia eta lanaldia, urteko lanorduetan adierazita:

Enplegatua:

Lan kontratu mota:

Urteko ordu-kopurua:

Kontratuan zehar plantilla homogeneoa ez den kasuetarako, konpromisoa hartzen duela egutegi zehatz bat aurkezteko, honako hauek zehaztuta: zenbat langile erabiliko diren kontratua gauzatzeko, langile bakoitzak urteko lanaldia lanordutan izango duen, eta kontratuaren hasiera eta amaiera datak..

**Baliabide materialak eta/edo giza baliabideak esleitzeari dagokionez:** Esleipendun izanez gero, eta kontratua gauzatzen den bitartean, bere gain hartzen duela proposamen tekniko-profesionalean azaldutako baliabide pertsonalak kontratuari atxikitzeko betebeharra..

Era berean, bere gain hartzen du Bizkaian egoitza sozial edo establezimendu bat kontratuari atxikitzeko betebeharra, zerbitzu hori emateko beharrezkoak diren lanak egin ditzan.

Nolanahi ere, kontratua behar bezala gauzatzen dela bermatzeko beharrezkoak diren harremanak eta komunikazioak bideratzeko, solaskide bat izendatuko da, kontratua gauzatzeari buruzko komunikazioak jasotzeko. Solaskideari dagokio exekuzioaz arduratzen diren pertsonen jakinaraztea DEMAk planteatzen duen zerbitzua emateari buruzko gaiak..

Solaskidearen izen abizenak eta helbide elektronikoa:

**Zerbitzuak emango dituen giza taldeari dagokionez:** Talde teknikoko kide bat ordeztu aurretik, DEMAri jakinarazi beharko zaio ordezkorearen izena, bai eta kontratu hau arautzen duten agirietan eskatzen diren prestakuntza- eta esperientzia-betekizunak egiaztatu ere. DEMA izango da ordezkapenarekiko adostasunaren edo desadostasunaren erantzulea. Aurretiazko baimenaren betebeharrak ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, funtsezko betebeharrak ez betetzea baita..

**Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluari dagokionez:** Ordezkatzen duen enpresak:

Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko kasuren batean badago.

EZ dago Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko ezein kasutan.

Erantzuna baiezkua bada:

EZ du parte hartzen kontratua esleitzeko orduan, baldin eta enpresa horiek, talde berekoak izanik, edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako ordezkorearen kasuren bat izanik, banakako proposamenak aurkezten badituzte..

Kontratua esleitzeko, talde berekoak diren enprekin edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako ordezkorearen kasuren bat duten enprekin parte hartzen badute, banakako proposamenak aurkezten dituzte. Hona hemen proposamen horiek:

IFZ eta Izen soziala

Konpromisoa hartzen duela baldintza tekniko eta administratiboen agiri honetan jasotako eta enpresak bere proposamen teknikoan proposatutako gauzatze baldintza guztiak betetzeko.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan,

Lekua, data eta sinadura.

### III. ERANSKINA - PROPOSAMEN EKONOMIKOA

#### ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO LABORLAN I eta II PROIEKTU-LABORATEGIA EBALUATZEKO ZERBITZUA

(Aldi baterako enpresa-batasunen kasuan, enpresa kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du.)

.....jaunak/andreak  
helbidea:.....; NAN:.....; telefonoa:.....;  
helbide elektronikoa:....., gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna ditu, bere izenean  
(edo..... ren izenean:.....; telefono zenbakia:.....; IFK:.....).

#### ADIERAZTEN DU:

1) Konpromisoa hartzen dudala "**Enplegagarritasuna hobetzeko LABORLAN proiektu-laborategia ebaluatzeke zerbitzua**" izeneko proiektua ebaluatzeke zerbitzua emateko, honako prezio honen truke:.....euro (letretan eta zenbakietan idatzi) gehi BEZaren % 21, urtebeteko epean. Prezioan kontzeptu guztiak sartzen direla ulertu behar da, zergak (BEZa izan ezik), gastuak, tasak eta edozein zerga-ariotako arielak barne, baita kontratistaren onura ere. Baldintza agirietako "kontratuaren xedeari" buruzko puntuan deskribatutako zerbitzu guztiak hemen proposatutako prezioan emango dituela onartzen du.

Lehen aipatutako prezioa zerbitzu osoari dagokio, eta jarraian, honako partida hauetan banakatzen da:

Lan kostuen banakapena:

Egiturazko kostuen banakapena:

Beste kostu batzuen banakapena:

2) Ezagutzen ditudala esleipen prozeduraren baldintza agiria eta esleipen hau arautuko duten gainerako agiriak, eta beren-beregi onartzen ditudala.

3) Ordezkatzen dudana enpresak betetzen dituela irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak.

..... (e) n, 20..... (e) ko..... aren..... (e) (a) n.

Sinadura